

Tasmaniako aborijena bost libratan



Azken lau tasmaniarrek 1850eko hamarkadan. Eskuinean eserita dagoena Truganini da, hiltzen azkena (1876). XIX. mendearen hasieran 5.000 aborijen inguru bizi ziren uhartean, baina gobernu britainiarrek baimendutako giza ehizaren ondoren desagertu egin ziren.

OZEANIA, 1642. Abel Tasman Jansen nabigatzaile holandarrak uharte bat aurkitu zuen Australiako kostaldetik 240 kilometrora. Bertako biztanleak azal iluneko eta ile kizkurreko gizon-emakume txiki eta argalak ziren (gizonezkoek 1,60 m neurtzen zuten batez beste, eta emakumeek 1,48). Ehiza eta bilketa zituzten bizibide. Hasieran Van Diemenen Lurra esan zioten irlari, Anthony Van Diemen garai hartako Ekialdeko Indietako Holandar Konpainiaren gobernadore orokorraren omenez. Baina 1855etik aurrera aurkitzailearen izena jarri zioten: Tasmania.

Holandarren ondoren, frantsesak eta britainiarrek iritsi ziren uhartera, eta bertakoak esklabo egiten hasi ziren. 1803an britainiarrek presondegi kolonia bat ezarri zuten bertan eta, kondenatuez gain, lur eremuak lortzeko eskrupulurik ez zuten kolonoak iristen hasi ziren. Kolonoek ez zituzten aborijenek ehiza eremuak errespetatzen eta liskarrak berehalaz piztu ziren armada britainiarren babesa zuten iritsi berrien eta beren burua defendatzeko ezer gutxi zuten tasmaniarren artean. Europarrek egindako hilketa, bortxaketa, bahiketa eta bestelako gehiegikeriek ez zuten zigorrik. Eta, hala ere, tasmaniarrek beren burua defendatzen

ahalegindu ziren, suzko armen kontra harriek eta lantzek inolako aukerarik izan ez arren.

1826an, *Colonial Times and Tasmanian Advertiser* astekariak autodefentsa erabili zuen aitzakiatzat kolonoen jarrera zuzitzeko: “Ez gaude hemen lan filantropikoa egiteko. Autodefentsa naturaren lehen legea da. Gobernuak bertakoak kanporatzen ez baditu, basapiztiak bailiran ehizatuko ditugu”.

Gobernu britainiarrek tasmaniarrek beste uharte batera aldatzea pentsatu zuen, baina azkenean aldizkariaren iradokizunak irtenbide azkarra goa ekarriko zuela erabaki zuen. Hala, 1828an aborijenek ehiza baimendu zuten. Baimendu eta akuilatu, ehizaki bakoitzak ordainsaria baitzuen: helduak bost libratan ordaintzen ziren; haurrak, bitan. 1803an 5.000 aborijen inguru bizi ziren irlan; 1830ean 200 bat geratzen ziren.

1860an azken gizonezko tasmaniarra hil zen. Royal Society of Tasmania elkarteak George Stokelrek gorpua larrutzeko agindua eman zuen, oroigarri gisa larruarekin zorro bat egiteko. Azken emakume tasmaniarra, Truganini, 1876an hil zen. Genozidioa burutu zen. ■



Arrastoak

Bizkotxoaren hastapen gogorrak

XVI. MENDEAN, bizkotxoak marinelen elikagai nagusieta-koa ziren itsas ibilaldi luzeetan. Opil txiki biribilak ziren, galleta modukoak, gari irinez eginak. Bi aldiz egosten zituzten, bidaian zehar hartzitu ez zitezten. Eta egosaldi bikoitz horretatik datorkie izena, latinez *biscoctus* hitzek “bitan egosia” esan nahi baitute

Hortaz, duela 500 urteko bizkotxo haiek ez zuten zerikusirik gure gaurko bizkotxo harroekin. Antz handiagoa zuten frantsesezko edo ingelesezko *biscuit*ekin. Baina ez ziren gozoak. Arrain gazituarekin, urdaiarekin, lekaleekin edo arrozarekin batera jan ohi zituzten, edo, besterik ezean, olio pixka bat botatzen zioten.

Bizkotxoak bustitzeko ohitura hasieratik zabaldu zen. Baina egun jalekeria hutsez egiten duguna, beharregatik egiten zuten orduan. Egunak aurrera joan ahala, opil haiek gogortu egiten ziren, janezin bihurtu arte. Horregatik uretan edo ardotan busti ohi zituzten, hortzeriaren mesedetan. ■



XVI. mendeko bizkotxoek ez zuten zerikusirik egungo opil harro gozoekin.